

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn BALIO ANITZEKO GIDARI-KOBRATZAILEAREN LAN POLTSA SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.**

**DEIALDIAREN ZIURTAGIRIAK BIDALTZEA, 2020KO URRIAREN 24AN FICOBAn (Irun) EGINGO DIREN JARDUNALDIKO PROBAK EGITEKO.**

Aurreikusten da, Eusko Jauraritzaren Osasun Sailak bi agindu argitaratuko dituela gaur, 2020ko urriaren 23an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Agindu horietan, Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) Aholku Batzordeak 2020ko urriaren 22an egindako bileran hartutako neurri zehatzak jasoko dira.

Eusko Jaurlaritzaren komunikatuaren arabera, bi aginduak 2020ko urriaren 23an sartuko dira indarrean.

Horietako batek udalerrri hauei eragingo die:

- Bizkaian: Abadiño, Durango, Elorrio, Ermua eta Lekeitio.
- Gipuzkoan: Andoain, Astigarraga, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Deba, Eibar, Elgoibar, Hernani, Lazkao, Legazpi, Lezo, Oñati, Ordizia, Pasaia, Tolosa, Urnieta, Urretxu, Zumaia eta Zumarraga..

Komunikatuaren arabera, aipatutako udalerrietako herritarrei ez irtetea eta ez sartzea gomendatzen zaie, honako kasu hauetan izan ezik: osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetara joateagatik, lan-arrazoiengatik, ikasketengatik, ohiko bizilekura itzultzeagatik, mendekoen laguntza eta zaintzagatik edo ezinbesteko kausengatik egindako joan-etorrietarako.

Horrela, bada, **berehala bidaliko zaie udalerrri horietako batean egoitza duten hautagaiei, onarpen-eskabidearen inprimakian jasotakoaren arabera, 2020ko urriaren 24an Ficoban (Irun) egingo diren probak egiteko deialdiaren ziurtagiri izenduna. Ziurtagiria gaur goizean bertan bidaliko da onartzeko eskabide-orrian adierazitako posta elektronikora.**

Horrez gain, hautagaiek beste aurretiazko informazio interesgarri batzuk dituzte Dbus-eko webgunean, hala nola onartutako pertsonen zerrendari buruzkoa (persona bakoitzari bere identifikazio-kodea jakinarazteko bidalitako posta elektronikoarekin osatuta) eta probak egiteko deialdia.